


Erf.:ATB./ J  
Esp. zk.:



## JAKINARAZPENA

2008ko ekainaren 11n izandako batzarrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi hau hartu dauela jakinarazoten deustu(e)t:

**19.- KALIDADEKO EREMUEN INGURUKO EXEKUZINO ETA AHOHKULARITZEA ESKAINTZEKO ZERBITZU KONTRATUA BEHIN-BEHINGOZ ESLEITZEA.**

### Xedea

Kalidadeko ereduen arabera udalaren funtzionamentua hobetzeko zerbitzu kontratua behin-behingo esleitzea.

### Aurrekariak

Lehenengoa: 2006ko maiatzaren 31n, 872. (bis) Alkatetza Dekretuz, Kalidadeko ereduen arabera udal funtzionamentua hobetzeko eta kalidade sistema hedatzeko 12 hilebeteko kontratua esleitu zan.

Bigarrena: 2007ko maiatzaren 24an, 515. Alkatetza Dekretuz, kontratua urtebetez luzatzea erabagi zan.

Hirugarrena: 2008ko maiatzaren 21ean, ATB batzordean baldintza teknikoak eztabaidatu ostean, finkaturik itxi ziran.

Laugarrena: 2008ko maiatzaren 21eko ATB batzordean, udalak jasoten dauen kalidadeko aholkularitza zerbitzua 2008ko bagilean eten ez daiten, kontratazino prozedura hasia ebatzi zan.

Bosgarrena: 2008ko maiatzaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak baldintza tekniko eta administratiboak onartu ebazan.



Bermeoko Udala

23-06-08



Seigarrena: Hiru enpresari kontratazino honetan parte hartzeko konbitak bialdu jakez, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 162.1. artikulua araberan: SIC SA, AZARO FUNDAZIOA, ESTRATEGIA LOCAL.

## **Argudioak**

Lehenengoa: 2008ko bagilaren 9a zan eskaintzak aurkezteko azken eguna, Estrategia Localek, telefono dei bidez adierazo dau, aholkularitza eskaintzeko daukien prozedura beste moeta batekoa dala eta ez dabela lizitazio honetan parte hartuko, beste aldetik, Azaro fundazioak, 2008ko maiatzaren 30ean, momentuko lan karga handia dala-eta, ez dabela eskaintzarik aurkeztuko jakinarazo dau, SIC SA enpresek epearen barruan aurkeztu dau eskaintzea.

Bigarrena: Dagoan proposamen bakarra aztertuta, onartutako baldintzak bat dator eta udalaren beharrezanetara erabat egokitzen da, teknikoki zein ekonomikoki.

Hirugarrena: Kontu-hartzailearen 2008ko maiatzaren 22ko txostenaren arabera, kontratua egiteko behar besteko kontsignazioa dago.

## **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Kalidadeko eredu araberan udalaren funtzionamendua hobetzeko zerbitzu kontratuaren esleipendun SIC SA enpresea izentetea.

BIGARRENA: Kontratua 36.000,00 €-an esleitzea. Prezioa, 31.034,48 €-koa da, gehi 4.965,51 € (BEZa).

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari, esleipen horren indarrez, segidan adierazoten diran jarduketak egin beharko dauzala jakinarazotea:

- Behin betiko bermea jarri (1.551,72 €) udal honetako Diruzaintzako bulegoetan.
- Udalak eskatutako dokumentazio orokorraren artean, aurkeztu ez diran dokumentuak aurkeztu.

15 eguneko epea igarota, behin betiko esleipena egingo da, gitxienez, 10 eguneko web guneko **Kontratugilearen Profila** atalean iragarrita egon ostean.

LAUGARRENA: SIC SA enpresei erabagi honen barri emotea jagokon jakinarazpenaren bidez.

**Erabagi honen aurka aurkeztu ahal dozu(e)zan errekurtsok:**

Erabagi hau administrazio bidea amaitzen dauen egintzea da, eta hartutako erabagia onartu barik dagoan akta batean dago, behin betiko onespena emon arte. Beraz, **erabagiagaz konforme ez bazagoz/e errekurtsok honek aurkeztu zeink(i)ez:**

- **UDALEAN: Berraztertze errekurtsok**<sup>1</sup>
  - **Gura izan ezkerok**, eta Administrazioagazko auzi-errekurtsok aurkeztu baino lehen **berraztertze errekurtsok** aurkeztu zeinkio/e ebazpena emon dauen organoari.
  - **Horretarako hilebeteko epea daukazu/e** jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- **EPAITEGIAN: Administrazioagazko auzi-errekurtsok**<sup>2</sup>
  - **Bi hilabeteko epea daukazu/e** errekurtsok hau aurkezteko, erabagi honen jakinarazpena hartu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
  - Errekurtsok aurkeztekotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren **Administrazioagazko Auzietarako Epaitegira jo beharko dozu/e**.

Dana dala, zure/zuen eskubideak babesteko egoki deritxazu(e)n beste edozein egintza be eroan ahal dozu aurrera, edota beste errekurtsoren bat be aurkeztu ahal izango dozu/e, beti be **legeak horretarako aukerea emoten badeutsu/e**.

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

Bermeon, 2008ko ekainaren 16an



**JARDUNEKO IDAZKARIA**

<sup>1</sup> Beti be, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan eta honekatz bat datozen gainontzeko artikuluetan agindutakoari jarraituta.

<sup>2</sup> Beti be, Administrazioagazko Auzien Jurisdikzioa arautzen dauen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109.c artikuluan agindutakoari jarraituta.

